



HITZORDUA BERTAN BEHERA UZTEAREN POLITIKA

Zer gertatzen da hitzordu batera joaten ez zarenean?

Ulertzen dugu mila gauza dituzuela buruan, guk ere baditugulako:

- Lana
- Familia
- Seme-alabak
- Etxeko lanak
- Sukaldata
- Erosketak
- Entrenatu
- ...

Baina uler ezazue hitzordu batera ez etortzeak zera dakarkigula guri:

- Kostu ekonomikoa
- Beste pertsona batek hitzordu horretaz goatzeko aukera galtzea
- Atzerapenak agendan

Eta zuei zera suposatzen dizue:

- Helburuen lorpena atzeratzea
- Gurekiko harremana okertzea

Oroigarriak

Urte hauetan izan dugun esperientziagatik, hitzorduren aurreko egunean oroigarri bat bidaltzen dizuegu:

"Kaixo, X: Mezu hau, 2023ko azaroaren 16an, 18:30etan nutrizio-jarraipeneko saio bat (presentziala) duzula baieztatzeko da. Zalantzarik baduzu, WhatsApp hau bera erantzun dezakezu.

Mezu honetan gure baliogabetze-politika gogorarazten dizut: hitzordura joaterik ez baduzu, 24 ordu baino lehenago bertan behera utzi beharko da hitzordua, agenda behar adina denboraz berrantolatu ahal izateko. Bestela, kontsultaren kostuaren erdia TRANSFERENTZIA bidez ordaindu beharko da, **ES98 3035 0028 18 0280138969 zenbakian**.

KIROLARIAREN HILEKO ZERBITZUAREN edo BONUAREN saio baten kasuan, hitzordura joaten ez bada eta behar besteko aurrerapenaz abisatzen ez bada, saioa galdutzat joko da, errekupeatzeko aukerarik gabe. Hitzordu-aldaketek edo 24 ordu baino lehen abisatutako ezeztapenek ez dute inolako kalterik izango gure bezeroentzat, baina eskertuko dugu ahalik eta lasterren egitea.



Baldintza horiek ez dira aplikatuko, baldin eta ezinbesteko kausaren bat, istripuren bat edo gaixotasun larri edo presakoren bat badago eta, beraz, eskatzen dugun 24 ordu lehenago abisatu ezin bada, betiere erakunde fidagarri batek idatziz justifikatzen baditu. Justifikatu ezin diren arrazoiak ez dira baliozkoak, adibidez, kontsulta non dagoen ez aurkitzea, bat-bateko aldaketak edo laneko edo norberaren ustekabeko aldaketak, bai eta pazienteek ahaztuak edo deskuiduak izatea ere.

Eskerrik asko.

--

Arreta ordutegia:

☎ Telefonoa eta WhatsApp: Astelehenetik Ostiralera, 8:00etatik 20:00etara

✉ Korreoa: Aste osoa

Bertan behera uzteak:

- **Hitzordua baino 48 ordu lehenago:** kontsultaren zenbatekoa itzuliko da edota ez du kargurik izango
- **Aldaketa justifikatuak hitzorduaren aurreko 24 orduetan:** aste berean beste hitzordu bat esleituko da, edo saioa posta elektronikoz egingo da, bientzat ordutegi egokia aurkitzea ezinezkoa bada
- **Justifikatu gabeko baliogabetzeak, 24 ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin edo hurrengo asteetarako aldaketekin:** ez da zenbatekoa itzuliko eta bisita egindakotzat joko da. Garrantzitsua da ulertzea kontsulta-denbora biok gordeko dugula zure helburuak lortzeko. Etengabeko aldaketek eta bertan behera uzteek kalte egiten digute bioi, zure tratamenduaren arrakastari eta hutsune hori aprobetxa zezaketen eta oraindik hitzordu baterako itxaron behar duten beste paziente batzuei.
- **Zure hitzordua baino egun batzuk lehenago, oroigarri bat bidaliko dizugu:** horrela, itundutako ordutegiarekin izandako arazoen berri emango diguzu lehenbailehen, alternatiba bat bilatzeko.

